

ACEX PROGRAMAKO ORDUEN MURRIZKETARIK EZ HEZKUNTZA PUBLIKOAN!!

Murrizketa hau aplikatzeko Hezkuntza Sailak argudiatzen du zentroen %20tan baino ez dagoela martxan eta hau ez dela bidezkoa.

ACEX (Eskolaz Kanpoko ekintza osagarrien programa) duela 20 urte sortu zen arazo laboral bati konponbidea emate aldera eta denboraren poderioz, zabaltzen, aldatzen eta hobetzen joan da.

steilasek honako hau dio:

- Guk ulertzen dugu hezte eremua ez dela mugatzen ikas orduetara soilik, eta programa horiek aukera ematen digutela ikasleen beste ahalmen batzuk, hala nola, sozilizazioa, elkartasuna, hezkidetzatza, behar izan bereziak,..., garatzeko eta tokian tokiko hezkuntza integrala eta noski, benetako inklusioari bidea emateko.
- Aukera Berdintasuna eta familia kontziliaziorako ordu horiek behar beharrezkoak dira Eskola Publiko guztietan.
- Salagarria deritzogu Hezkuntza komunitatearekin kontsultatu gabe erabakiak hartzeari, inolako baloraziorik egin gabe.

steilasek zera eskatzen du:

- Ikastetxe guztietara hezkuntza programa horiek zabaltzea eta ez bakarrik Hamaika eskuko programak dituzten zentruetara. Horren beharra, lehen aipatu dugunez, eskola publiko guztietan dago eta ez zentru konkretu batzuetan.

Europako Iparraldeko hezkuntza eredua goraiatzeko du gure Hezkuntza Sailak eta gero ez die erreparatzen ikas orduetatik kanpoko programeei ematen zaien garrantzia.

ATZERA PAUSORIK EZ. IRAULI DEZAGUN EGOERA!!!